

Banatzaileentzako baimenak jaiak direla eta

Azken eguneratzea: Ostirala, 05 Maiatza 2017 15:03

Argitaratua: Ostirala, 05 Maiatza 2017 15:03



Udaltzaingotik ondorengoa jakinarazten da.

Loinatz Jaiak direla eta, Zaldizurreta kalean trafikoa etenda geldituko da egun horietan. Beraz, etenak eragiten dien edaritegien jabeei eta saltzaile eta banatzaileei egun horietako baimena jasotzera Udaltzaingora etortzeko deia egiten zaie.

Baimenak jasotzeko ordutegia honako hau izango da:

Goizetan 9:00etatik 13:00etara eta arratsaldean 15:00etatik 20:00etara.